Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala



# FESTIVAL DE MÚSICA SACRA
# ERLIJIO-MUSIKAKO JAIALDIA

ABRIL | **2019** | APIRILA

# FESTIVAL DE MÚSICA SACRA
# ERLIJIO-MUSIKAKO JAIALDIA

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

La entrada a los conciertos celebrados en las iglesias será libre hasta completar aforo, previa retirada de invitación (dos por persona) una hora antes del concierto en la puerta de la iglesia. Los conciertos celebrados en Baluarte tendrán una entrada de 10 € cada uno. (Abono para los tres conciertos por 25 €, solo en taquilla).

Elizetan eginen diren kontzertuetan sarrera librea izanen da, leku guztiak bete arte, betiere aurrez gonbidapena hartuta kontzertua hasi baino ordubete lehenagotik. Pertsona bakoitzak bi lagunendako gonbidapena har dezake. Baluarten eginen diren kontzertuetan, sarrerak 10 € balioko du, emanaldi bakoitzeko. (Hiru kontzertuetarako abonamenduak, 25 € leihatilan soilik).

**www.pamplonaescultura.es** / **www.iruñakulturada.eus**
**www.pamplona.es**

DL / LG NA 286-2016

# 2019

ABRIL | **PROGRAMA** | APIRILA

Martes | **9** | Asteartea | 20:00

IGLESIA CARMELITAS DESCALZOS - KARMELDAR OINUTSEN ELIZA

***Músicas y místicas al encuentro.***
***Un viaje espiritual en femenino***

***Musikak eta mistikak bat.***
***Bidaia espirituala, molde femeninoan***

Leire Ruiz (actriz-antzezlea).
Laia Frigolé (voz-ahotsa).
Ayla Losada Lorenzo (fídula y violonchelo-fidula eta txeloa).
Arantza Lorenzo de Reizábal (órgano portativo y campanas-organo garraiagarria eta kanpaiak).

Miércoles | **10** | Asteazkena | 20:00

BALUARTE. PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO DE NAVARRA
BALUARTE. NAFARROAKO BATZAR JAUREGIA ETA AUDITORIUMA

***Misa a ocho voces y grande orquesta.***

***Meza, zortzi ahots eta orkestra handirako.***

***Buenaventura Íñiguez Tellechea***

Coro Sinfónico de la Federación de Coros de Navarra, Orquesta Sinfónica de la Rioja y solistas.

Nafarroako Abesbatzen Federazioko Abesbatza sinfonikoa, Errioxako Orkestra sinfonikoa eta bakarlariak.

Jueves | **11** | Osteguna | 20:00

IGLESIA SAN SATURNINO - SAN ZERNIN ELIZA

***La voz de la viola***
***Biolaren ahotsa***

Isabel Villanueva (viola solo-biola soloa).

Viernes | **12** | Ostirala | 20:00

BALUARTE. PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO DE NAVARRA
BALUARTE. NAFARROAKO BATZAR JAUREGIA ETA AUDITORIUMA

***Et incarnatus est***

Coral de Cámara de Pamplona y Orquesta Ciudad de Pamplona.
Iruñeko Ganbera Abesbatza etaIruña Hiria Orkestra.

Marta Huarte (soprano-sopranoa).
Adriana Mayer (mezzosoprano-mezzosopranoa).
David Echeverría (tenor-tenorra).
Iosu Yeregui (bajo-baxua).

Domingo | **14** | Igandea | 19:30

BALUARTE. PALACIO DE CONGRESOS Y AUDITORIO DE NAVARRA
BALUARTE. NAFARROAKO BATZAR JAUREGIA ETA AUDITORIUMA

***El sentido de lo sublime***
***Sublimearen zentzua***

Sinfonietta Académica y Escolanía del Orfeón Pamplonés.
Sinfonietta Académica eta Iruñeko Orfeoiko Eskolania.

Martes | **16** | Asteartea | 20:00

IGLESIA SAN SATURNINO - SAN ZERNIN ELIZA

***Mary, star of the sea***

Gothic Voices.

Miércoles | **17** | Asteazkena | 20:00

IGLESIA SAN LORENZO - SAN LORENTZO ELIZA

***Mors et Gloria***

Coro de la Escuela de Canto Eugenia Echarren, Coral Olitense, Coral de Cámara Aizaga, acompañados de Orquesta.

Eugenia Echarren kantu-eskolako korua, Coral Olitense Abesbatza, Aizaga Ganbera Abesbatza, orkestraz lagunduta.






## *Músicas y místicas al encuentro. Un viaje espiritual en femenino*

## *Musikak eta mistikak bat. Bidaia espirituala, molde femeninoan*

**Leire Ruiz** (actriz-antzezlea).
**Laia Frigolé** (voz-ahotsa).
**Ayla Losada Lorenzo** (fídula y violonchelo-fidula eta txeloa).
**Arantza Lorenzo de Reizábal** (órgano portativo y campanas-organo garraiagarria eta kanpaiak).

Producción / Ekoizpena: **RAÚL MADINABEITIA**

Iglesia Carmelitas Descalzos - Karmeldar Oinutsen eliza
**Martes, 9 de abril | Apirilak 9, asteartea | 20:00**

Esta propuesta musical explora los puntos de encuentro entre dos estéticas alejadas en el tiempo, la medieval y la contemporánea, representadas por la música y el pensamiento femenino. Los puntos de encuentro entre las obras de los siglos XII-XIII y XXI que se escuchan en este concierto están en la sonoridad modal de su música, impregnada de intimismo y espiritualidad y en las temáticas abordadas. Un viaje existencial al interior del ser humano, que transita por experiencias vitales relacionadas con la melancolía, la ausencia, el amor, la espiritualidad y la duda.

La primera parte del concierto está dedicada a la espiritualidad medieval, representada con la música de Hildegard von Bingen y el Codex de las Huelgas, junto a los textos de Hadewijch de Amberes. En la segunda parte del concierto, se presenta la obra *En el corazón frontera* de la compositora Arantza Lorenzo de Reizábal.

Musika-proposamen honek musika eta emakume-pentsamenduen bidez islatzen diren bi garai aldenduetako –Erdi Aroa eta Aro Garaikidea– estetiken bateraguneak aztertzen ditu. Kontzertu honetan aditutako XII., XIII. eta XXI. mendeetako lanek barnekotasun eta espiritutasunez blaitutako musikaren ozentasunean bat egiten dute, baita hizpide hartzen dituzten gaietan ere. Gizakiaren barrenerako bidaia existentziala da, malenkonia, gabezia, maitasun, espiritutasun eta zalantzari loturiko bizi-esperientzietan barna igarotzen dena.

Kontzertuaren lehen zatia Erdi Aroko espiritualtasunari dago eskainita, Hildegard von Bingen-en musikaz eta Las Huelgas monasterioko Kodexaz, Anberesko Hadewijch-en testuez lagunduta. Bigarren zatian, Arantza Lorenzo de Reizábal konpositorearen *En el corazón frontera* lana aurkezten da.





Uno de los objetivos de la Federación de Coros de Navarra es promocionar la música del patrimonio musical navarro, y ofrecerla a la ciudad de Pamplona como parte de la recuperación del rico patrimonio cultural navarro. En esta ocasión, se interpretarán obras de los autores Buenaventura Íñiguez Tellechea y Aurelio Sagaseta Aríztegui.

Buenaventura Íñiguez Tellechea (Sangüesa 1840 - Sevilla 1902), organista y compositor. Fue alumno de Hilarión Eslava quién lo orientó hacia la plaza de organista de la Catedral de Sevilla. Tiene más de 60 obras catalogadas y entre ellas dos misas. La más importante *Misa a ocho voces y grande orquesta*. Aurelio Sagaseta Arízteguí (Ituren 1935-) Canónigo-Maestro de Capilla de la Catedral de Pamplona desde 1962 además de catedrático de Composición en el Conservatorio Superior de Música Pablo Sarasate, presidente de la Asociación Española de Musicólogos Eclesiásticos. ■

Nafarroako Abesbatzen Federazioaren helburuetako bat Nafarroako ondare musikala osatzen duen musika bultzatu eta Iruñeari eskaintzea da, horrela berreskuratzen baita, nolabait, Nafarroako kultur-ondare oparoa. Oraingoan Buenaventura Iñiguez Tellechea eta Aurelio Sagaseta Arízteguí egileen lanak joko dira.

Buenaventura Íñiguez Tellechea (Zangoza, 1840 - Sevilla, 1902) organo-jotzaile eta konpositorea izan zen. Hilarión Eslava izan zuen maisu, eta horrek bideratu zuen Sevillako katedraleko organista-lanpostura. 60 lan baino gehiago katalogatu zaizkio, horien artean, bi meza. *Meza, zortzi ahots eta orkestra handirako* da garrantzitsuena. Aurelio Sagaseta Arízteguí (Ituren, 1935-) Iruñeko katedraleko kapera maisu-kalonjea da 1962az geroztik, Konposizioko katedraduna Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan eta Elizako Musikologoen Espainiako Elkartearen presidentea.

# Misa a ocho voces y grande orquesta

# Meza, zortzi ahots eta orkestra handirako

## Buenaventura Íñiguez Tellechea

**Coro Sinfónico de la Federación de Coros de Navarra y Orquesta Sinfónica de la Rioja y solistas.**

**Nafarroako Abesbatzen Federazioko Abesbatza sinfonikoa, Errioxako Orkestra sinfonikoa eta bakarlariak.**

Director Orquesta/ Orkestrako Zuzendaria:
**JESÚS MARÍA ECHEVERRÍA**

Director Coro/ Abesbatzako Zuzendaria:
**MÁXIMO OLORIZ**

Baluarte. Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra
Baluarte. Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma

**Miércoles, 10 de abril | Apirilak 10, asteazkena | 20:00**



# *La voz de la viola*
# *Biolaren ahotsa*

**Isabel Villanueva**
(viola solo-biola soloa)

Iglesia San Saturnino
San Zernin eliza

**Jueves, 11 de abril | Apirilak 11, osteguna | 20:00**

La reconocida violinista Isabel Villanueva (Pamplona 1988), reciente Premio de Cultura de la Comunidad de Madrid de Música Clásica 2018 entre otros muchos galardones, presenta en esta ocasión un programa completo descubriendo la viola sola, explorando el repertorio y la gran variedad expresiva.

Una selección de repertorio que comprende, en adaptación para viola, obras emblemáticas como son la *Suite No.1* de Bach para cello solo y *Suite en re menor n.2 BWV 1008*. El programa incluye además dos obras referentes del siglo XX y XXI para viola: una selección de *Signs, Games and Messages* del compositor húngaro Gyorgy Kurtág que explora de forma minimalista las posibilidades extremas de la voz de la viola, y la *Suite Pirin* de la compositora búlgara Dobrinka Tabakova, basada en la música popular de sus raíces.

Isabel Villanueva izen handiko biolin-jotzailea da, (Iruña, 1988), beste askoren artean Madrilgo Erkidegoko 2018ko Musika Klasikoko Kultur Saria eskuratu berri du, eta biola arakatzeko programa oso bat eskaintzen digu oraingoan, errepertorioa eta ematen dituen askotariko adierazpideak esploratuz.

Errepertorio hautatuak barne hartzen ditu, biolarako moldaturik, lan enblematiko hauek: Bach-en *1. suitea* txelo-solorako eta *2. suitea, re minorrean BWV 1008.* Programak, gainera, biolarako XX. eta XXI. mendeko erreferentziazko lan hauek ere ditu: Gyorgy Kurtág konpositore hungariarraren *Signs, Games and Messages* delakoaren hautaketa bat, biola-hotsaren muturreko aukerak era minimalistan arakatzen dituena; eta Dobrinka Tabakova konpositore bulgariarraren *Suite Pirin*, haren sustraietako herri musikan oinarritutakoa.



# *Et incarnatus est*

**Coral de Cámara de Pamplona y Orquesta Ciudad de Pamplona.**

**Iruñeko Ganbera Abesbatza eta Iruña Hiria Orkestra.**

**Marta Huarte** (soprano-sopranoa).
**Adriana Mayer** (mezzosoprano-mezzosopranoa).
**David Echeverría** (tenor-tenorra).
**Iosu Yeregui** (bajo-baxua).

Director / Zuzendaria: **DAVID GÁLVEZ PINTADO**

La Coral de Cámara de Pamplona con la Orquesta Ciudad de Pamplona, bajo la dirección de David Gálvez Pintado, interpretan en este concierto la *Sinfonía en La mayor nº 29 K.201/186a* y el *Litaniae Lureanae K. 195/186d* de W.A. Mozart. Las dos obras del concierto pertenecen a un año trascendental para Mozart, el año 1774. Ambas se escriben con tan solo poco más de un mes de diferencia y ambas presentan una irrupción de esa Poesía que es instrumento de elevación capaz de situar al oyente “ante el Absoluto” (Paul Evdokimov: Teología de la Belleza).

Mozart no es particularmente religioso pero su don es tomado como “gracia de lo Alto” transmitido mediante la música y, por tanto, devuelto a los hombres. No importará que escriba música vocal o instrumental, siempre habrá redención en ella. Siempre habrá Poesía.

Iruñeko Ganbera Abesbatzak, Iruña Hiria Orkestrarekin batera eta David Gálvez Pintadoren zuzendaritzapean, Mozarten *Sinfonia La maiorrean 29.a K.201/186a* eta *Litaniae Lureanae K. 195/186d* joko ditu. Kontzertuko bi lan horiek Mozartentzat garrantzi handikoa izan zen urtekoak dira: 1774koak. Hilabete eskaseko tarteaz idatzi zituen, eta bietan agertzen da Poesiaren goraldia, entzulea “Jainko Gorenarekin parez pare” jartzeraino goratzeko gai den tresna baita poesia (Paul Evdokimov: Edertasunaren teologia).

Mozart ez da bereziki erlijiosoa, baina haren dohaina “goian dagoenaren graziatzat” jotzen da, musika bidez helarazia, eta, hortaz, gizakiei itzulia. Ez du axola ahots- edo instrumentu-musika idazten duen, beti izango du erredentzioa bere baitan. Beti izango du poesia.

Baluarte. Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra | Baluarte. Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma

**Viernes, 12 de abril | Apirilak 12, ostirala | 20:00**





[Fotografía/Argazkia: Javier Campos]

# *El sentido de lo sublime*
# *Sublimearen zentzua*

## Sinfonietta Académica y Escolanía del Orfeón Pamplonés.

## Sinfonietta Académica eta Iruñeko Orfeoiko Eskolania.

Director / Zuzendaria: **CAROLINE COLLIER**

Baluarte. Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra
Baluarte. Nafarroako Batzar Jauregia eta Auditoriuma

**Domingo, 14 de abril | Apirilak 14, igandea | 19:30**

La orquesta Sinfonietta Académica, dirigida por Caroline Collier, presenta para el Festival de Música Sacra de Pamplona un programa espiritual y variado en el que L.V. Beethoven y Pablo Sarasate serán los principales protagonistas. La Sinfonietta Académica acompañará, además, a las 50 voces de la Escolanía del Orfeón Pamplonés en la interpretación de una selección de obras religiosas de los compositores vascos Francisco Ibáñez Iribarria y Xabier Sarasola. La Escolanía estará dirigida por Juan Gaínza. Catalín Bucataru será el violín solista encargado de interpretar *Nocturno - Serenata para violín y orquesta* del compositor navarro Pablo Sarasate, una obra virtuosa, pocas veces programada, para violín y orquesta.

Caroline Collierren zuzendaritzapean, Sinfonietta Académica orkestrak L.V. Beethoven eta Pablo Sarasate ardatz izango dituen askotariko programa espirituala aurkezten du Iruñeko Erlijio Musikako Jaialdirako. Sinfonietta Académicak, gainera, Iruñeko Orfeoiko eskolaniako 50 ahotsak lagunduko ditu, Francisco Ibáñez Iribarria eta Xabier Sarasola euskal konpositoreen erlijio-lanen sorta hautatu baten interpretazioan. Juan Gaínzak zuzenduko du eskolania. Catalín Bucataru biolin-jotzaile bakarlariak joko du Pablo Sarasate konpositore nafarraren *Nocturno - Serenata biolin eta orkestrarako*, lan birtuosoa, biolin eta orkestrarako, gutxitan programatzen dena.



[Fotografía/Argazkia: Eric Richmond]



# *Mary, star of the sea*

## Gothic Voices

**Catherine King** (mezzosoprano-mezzosopranoa).
**Steven Harrold** (tenor-tenorra).
**Julian Podger** (tenor-tenorra).
**Stephen Charlesworth** (barítono-baritonoa)

Iglesia San Saturnino
San Zernin eliza

**Martes, 16 de abril | Apirilak 16, asteartea | 20:00**

Gothic Voices es un grupo británico de música antigua, especializado en el repertorio medieval. Fue fundado en 1980 por Christopher Page. Su repertorio está centrado sobre todo en música del siglo XIV procedente de Inglaterra y norte de Francia. Se caracterizan por la interpretación de la polifonía profana a capella, sin acompañamiento instrumental.

Bajo el título de *Mary, Star of the Sea*, Gothic Voices intercala composiciones escritas en el siglo XV por John Dunstaple (c. 1390-1453) con dos obras escritas en el siglo XX por el compositor americano Joanne Metcalf (*1958), y el inglés Andrew Smith (*1970). El concierto explora musicalmente el poder de los antiguos textos poéticos de los grandes maestros medievales ingleses, y sus interpretaciones actuales en relación a las imágenes y calificaciones que ha recibido 'la Madre bíblica' a lo largo de los tiempos. ■

Gothic Voices antzinako musikako talde britainiarra da, Erdi Aroko errepertorioan espezializatua. 1980. urtean sortu zuen Christopher Page-k. Ingalaterrako eta Frantzia iparraldeko XIV. mendeko musika du ardatz batez ere haren errepertorioak. Polifonia profanoa *a capella*, hots, instrumentu-akonpainamendurik gabe, interpretatzea da taldearen bereizgarria.

*Mary, Star of the Sea* izenburupean, Gothic Voices taldeak XV. mendean John Dunstaple-k (c. 1390-1453) idatzitako konposizioak eta Joanne Metcalf (*1958) konpositore amerikarrak eta Andrew Smith ingelesak (*1970) XX. mendean idatzitakoak txandakatzen ditu. Kontzertuak Erdi Aroko maisu ingeles handien antzinako poesia-testuen boterea esploratzen du, musikaren bitartez, eta arakatzen ditu, baita ere, "Bibliako Amak" denboraren joanean izandako irudien eta jasotako izendapenei loturiko egungo interpretazioak.



# *Mors et Gloria*

**Coro de la Escuela de Canto Eugenia Echarren, Coral Olitense, Coral de Cámara Aizaga, acompañados de Orquesta.**

**Eugenia Echarren kantu-eskolako korua, Coral Olitense Abesbatza, Aizaga Ganbera Abesbatza, orkestraz lagunduta.**

Director / Zuzendaria: **JAVIER ECHARRI**

Iglesia San Lorenzo
San Lorentzo eliza

**Miércoles 17 de abril | Apirilak 17, asteazkena | 20:00**

El público podrá escuchar un repertorio lleno de simbolismos a través de obras como *Eli Eli* del compositor húngaro Làjos Bardos y *O Crux* del compositor catalán Fernand Sors. Además, se interpretarán la *Misa Brevis* en Do Mayor Kv. 220 de W. A. Mozart y el *Gloria* del compositor londinense J. Rutter. Un programa que ensalza la muerte de Jesús y su gloriosa resurrección.

El concierto es una exaltación del deseo intrínseco de querer transcender, de la necesidad del ser humano de vivir con esperanza. La interpretación de estas piezas musicales creará momentos de paz y de gloria.

Sinbolismoz jositako errepertorioa entzungo du publikoak, besteak beste Làjos Bardos konpositore hungariarraren *Eli Eli* eta Fernand Sors katalanaren *O Crux* lanak. Horrez gain, W. A Mozarten, *Misa Brevis* Do Maiorrean Kv. 220 eta J. Rutter konpositore londrestarraren *Gloria* izango dira entzungai. Jesusen heriotza eta haren berpizkunde loriatsua goraipatzen ditu programa honek.

Gizakiak gailurra jotzeko duen nahia, eta itxaropentsu bizitzeko beharra; barne-desio horien gorazarrea da kontzertua. Musika-pieza horien interpretazioak une baketsu eta loriatsuak sortuko ditu.




FESTIVAL DE MÚSICA SACRA
ERLIJIO-MUSIKAKO JAIALDIA

Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala